

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
2014 MAI 27		
SARJETA	BITOLA	
1047		

**EH Bildu eta EAJ-ko Udal Taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan honako mozioa aurkezten du:**

## **“Erabagitteko Eskubidiaren Aldeko Adierazpena**

Balitteke hemen udalbatza osatzen dogun talde politikuek Euskal Herrixarendako proiektu nahiz egitura ezberdiñak gura izatia. Biharbada hemen gagozen danok eztozu gure herrixarendako etorkizun bera amestuko. Baiña, danok bat egitten dogu onarketako **Euskal Herrixa** izango dan hori, euskal herrittarron erabagixaz izan bihar dala. Horretan danok bat egitten dogu, gaur eta hemen.

Hemen batutakuok Erabagitteko Eskubidiaren aldeko jarrera erakutsi gura dogu, printzipixo demokratikua dalako. Honekin esan gura dogu eskubide hau gauzaketia eta praktikara eruatia herrittarroi tokaiten xakula.

Eta, azkenik, uste dogu mezu hau gizartian zabalketia joera eta ideologia ezberdiñekuok alkarrekin egin biharreko bidia dala, eta horregatik honoko puntuak aldarrikaketan dittugu:

- **Euskal Herrixa naziñua da**
- **Euskal Herrixak bere etorkizuna erabagitteko eskubidia dako**
- **Euskal Herrittarroi tokaiten xaku erabagi hori hartzeia**

Hala zabaldu eta jakin eragitten dogu gaur, Oñatiko Udaletxeke Osoko Bilkura honetan , 2014ko Maiatzaren 29xan.”

